

DBHn Lansariak berdintzearen aldeko Kanpaina

DBH

Bigarren Zikloa

- * Lizentzia edo graduduna
- * Astean 22 eskola-ordu eta 10 ordu osagarri
- * 30 ikasle gelako

Lehenengo Zikloa

- * Lizentzia edo graduduna
- * Astean 22 eskola-ordu eta 10 ordu osagarri
- * 30 ikasle gelako

Orduan... non dago aldea?

nire soldata:
hileru, 2.597 €

nirea: 2.371 €

hileru 226 € eta
urtean 3.170 € gutxiago

**Lan berdinak,
titulazio berbera...
zergatik ez soldata bera?**



Parte hartu: www.steilas.eus

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Irakasleak (DBH)

**Lan berdinak, titulazio berbera...
zergatik ez soldata bera?**

2017an 25 urte beteko dira Itundutako Ikastetxeetako Irakasleen Lansarien Parekidetasun progresiborako akordioa sinatu zela. Akordioa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, patronalek eta hainbat sindikatuk –steilas, CCOO eta UGT– sinatu genuen. Hitzarmenak EAEko itundutako ikastetxe guztietan –gizarte ekimenekoak zein ikastolak– izan du eragina.

Akordio horri esker, gure lan sariak irakaskuntza publikoko irakasleentara hurbildu dira. Helburua lan maila guztietan lansarien % 95a lortzea bazen ere, egun, irakaskuntza publikoko funtzionarioek lansarietan izandako murrizketak direla eta ia kategoria guztietan –Haur Hezkuntza 2. zikloa, Lehen Hezkuntza, DBH bigarren zikloa, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa– ehuneko hori gainditu egin da.

Alabaina, DBHko Lehengo zikloan egoera bestelakoa da, eskolak ematen dituztenek lansarien diskriminazioa pairatzen dutelako. Irakaskuntza publikoko pareko mailakoekin alderatuz % 88,84 kobratzen dute, aipatu akordioak % 95 kobratu beharko luketela jaso arren. Urtean oinarritzko soldatan 3.170 € eta hirurteko bakoitzeko 137 € gutxiago eskuratzen dute Bigarren Hezkuntzako gainontzeko irakasleekin alderatuz.

DBHko bi zikloetako irakasleek titulazio eskakizun bera dute (lizentziatua/graduata, habilitazio pedagogikoa eta dagokion hezkuntza gaitasuna) eta bete beharreko funtzioei dagokienez ez dago inolako alderik: programatzea, ebaluatzea, tutoretza, proiektuak, bilerak eta bestelako jarduerak... Horrez gain, eskola-ordu eta ordu osagarrien kopuru bera daukate.

Patronalek sekulan ez dute deus egin horren inguruan eta bere jarrera zuzitzen dute erantzukizuna Administrazioari pasa nahian. Baina lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena ez du Administrazioak sinatu eta finantziarioa handitzea eskatzeko orduan gaiak ez du inoiz lehentasunik izan haientzat. Are gehiago, diskriminazio hori disuasio-tresna bezala erabiltzen da egun, ikastetxeetan langileak zigortu edo saritzeko.

Gaurko ratioa kontutan hartuta, EAEn lan sarien bereizketa horrek gutxi gora behera itundutako ikastetxeetako 1.250 irakasleei eragingo lieke: 900en bat Gizarte Ekimeneko ikastetxeetakoak eta 350ren bat ikastoletan. Eragindako kopurua handiago da ohikoa baita DBHko irakasleek bere lanaldiaren zati bat lehengo zikloan izatea. Beraz proportzio horretan eragingo dio diskriminazioak.

DBHn lansariak berdintzearen aldeko kanpaina

Mugitzeko garaia dugu

Bereizketa lotsagarri honekin amaitzea lortu behar dugu. Epe labur batean eta konpromiso zehatzen bidez DBH 1eko lansariak DBH 2rekin berdintzeko, beharrezko urratsak eman daitezten exijitu behar da.

steilas sindikatuak kanpaina bat abiatu du helburu horrekin. Hauek dira ekimen horren ardatz nagusiak:

- * Ikastetxeetan nahi komunikabideetan egoera ikus-taraztea eta sozializatzea.
- * Mahai ezberdinetan patronalei eta Administrazioari Akordioa bete dadin eskatzea.
- * Kolektiboaren eskubidea berreskuratzeko beharrezko ekimen judizialari ekitea (horretan gaude).
- * Gure ordezkari sindikalek eskaera horren aldeko mobilizazioak burutzea, egoera kalean ere ikus dadin.

Eta zuk, zer egin dezakezu?

Ez bazara inplikaturia

- * Kanpainari babesa adierazi zure sinaduraren bidez www.steilas.eus
- * Aldarrikapena zabaldu zure esparru hurbilean eta sare sozialen bidez
- * Ikastetxe mailan planteatzen denean zure sostengu eman

DBHko Lehengo Zikloan aritu/ aritzen bazara, edo aritzeko arriskuan bazaude

Aurreko guztiaz gain:

- * Zure eskubidea administrazioaren aurrean eskatu (informatu www.steilas.eus)
- * Antolatu eta bultzatu ekimena zure ikastetxean (Asanblada, Eskola Kontseilua, klaustroa...).

**Zure laguntzarekin lor dezakegu!
Inork ez dizu ezer oparituko! Zeurearen alde borrokatu!
Zure eskubide laboralak defendatu!**